



## Bittor Esparta eta Zuriñe Arrue final nagusietan eta gazteen mailetan hiru domina euskal selekzioko eskalatzailleek Espainiako Zailtasun Eskaladako Kopako bigarrenen

- **Andoni Esparta 3. Sailkatu da Europako Gazte mailako Kopan, Suitzako Usterren**

**2018ko uztailak 2.** Espainiako zailtasun eskaladako Kopako bigarrena jokatu da Bartzelonan joan den asteburuan. Euskal selekzioko ordezkariak hiru domina lortu dituzte gazte mailetan, eta nagusien mailan Bittor Esparta eta Zuriñe Arrue finalean aritu dira.

Finalean beste behin, Bittor eta Zuriñe. Kopa zabaldu zuen Zaragozako proban bezala, Bartzelonako honetan ere onenen artean lehiatu dira biak. Bittorrek laugarren amaitu zuen, Zaragozako 7.a hobetuz; sailkatze saioetan bi Top egin zituen, zortzi finalistek bezala, eta haien artean nabarmendu zen gero, esperientzia handiko hiru eskalatzaille soilik izanik aurretik. Zuriñe, berriz, laugarren sailkatu zen finalerako, baina han ez zuen asmatu eta 8. amaitu zuen; Zaragozan lortutako 5.postua langa polita da hurrengorako.

### Dominak gazte mailetan

20 urtez azpikoetan **Martin Urrutiak** estreinakoz jo du podiuma. Sailkatze saioan bi bideetan Top egin zuen bi eskalatzailleetako bat izan zen, eta eutsi egin zion horri finalean bigarren amaitzeko. **Irati Zabala** hirugarren sailkatu zen, Zaragozan bezala, bere kalitatea baieztatuz. Sailkatze saioan laugarren pasatu zen, eta koska bat irabazi zuen finalean.

**Aimar Usonek** lortu zuen euskal selekzioko hirugarren domina. 16 urtez azpikoetan hirugarren sailkatu zen eta Maciá anaiak soilik izan zituen aurretik. Beste lehiakideengandik nabarmendu ziren hirurak finalean, eta eusleku baten gorabeherak erabaki zuen berau. Oso ondo **Joanes Esparta** eta **Martzel Vicario**, laugarren eta bosgarren ondoz ondo. Kopako lehen lehiaketan, Zaragozan, ere gertu izan ziren euskaldunak: 4.Joanes, 5.Aimar eta 7.Martzel. Nesketan finalean sartu zena, beste behin, **Haizea Oses** izan zen; laugarren marka onenarekin pasatu zen finalera, baina han zortzigarren amaitu zuen.

Espainiako zailtasun Kopako hirugarren eta azkena, Madrilan, azaroak 3-4 asteburuan.

### Andoni Espartak Europako A Gazte mailan brontzea

Atzo bertan, uztailak 1, **Andoni Espartak** Europako Zailtasun Eskaladako Kopako brontzezko domina irabazi zuen Suitzako Uster hirian, 18 urtez azpikoen A Gazte mailan. Bilbotarra bigarrena da jada sailkapenean –iaz 4.amaitu zuen-, eta baita Munduko Rankigean ere. Azpimarratzekoa da **Eneko Carretero** ere maila bereko finalean 10. sailkatu zela, eta **Mikel Linacisoro** ere junior mailako finalean 10.a izan zela; sailkatze saioetan Eneko 2. Markarekin pasatu zen eta Mikel 3.arekin, baina finala ez zitzaizen nahi bezain ondo atera. Datorren asteburuan München lehiatuko dute hiru euskaldunek Espainiako selekzioarekin.



Espainiako Zailtasun Eskalada Kopa 2018

2. lehiaketa: Bartzelona

<b>Absolutua</b>	
1.Ramon Julian (Catalunya)	1.Francis Guillen (Catalunya)
2.Javier Cano (Extremadura)	2.Helena Aleman (Catalunya)
3.Eric López (Madrid)	3.Muriel Ruiz de Larramendi (Nafarroa)
<b>4.Bittor Esparta</b>	<b>8.Zuriñe Arrue</b>
<b>12.Martin Urrutia</b>	<b>12.Irati Zabala</b>
<b>20.Eder Lomba</b>	
<b>Sub 20</b>	
1.Iker Ortíz(Valencia)	1.Muriel Ruiz de Larramendi (Nafarroa)
<b>2. Martin Urrutia</b>	<b>3.Irati Zabala</b>
<b>Sub 18</b>	
	1.Laura Pellicer (Aragón)
	<b>4.Aitziber Urrutia</b>
<b>Sub 16</b>	
1.Cedric Junqué (Catalunya)	1.Gal Pérez (Catalunya)
<b>3.Aimar Uson</b>	<b>8.Haizea Oses</b>
<b>4.Joanes Esparta</b>	<b>14. Lucia Arlanzon</b>
<b>5.Martzel Vicario</b>	<b>16.Ilia Uriarte</b>

